

## Spot Sozialen Nazioarteko 5. Lehiaketa

**Mugarik Gabe** garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak aurten ere antolatu du **"ZureVision-SocialVision" Nazioarteko Lehiaketa**.

Lehiaketa honen xedea da **elikadura-subiranotasunaren** kontzeptua herritarren artean ezagutaraztea. Horretarako, bada, gaur egungo nekazaritza- eta elikadura- sistemaren funtzionamendua eta sistema horrek elikagaiak ekoizten eta kontsumitzen dituzten lagunengan dituen ondorioak salatu eta, aldi berean, emakumeek, munduko hainbat txokotan eta gure inguruan ere, jasan behar dituzten berariazko ondorioak agerian utzi nahi ditugu. Izan ere, elikadura-subiranotasuna aipatutako eredu horri aurre egiteko alternatiba da, eta, hortaz, ikuspegi horren barruan garatzen ari diren esperientzien berri ere eman nahi dugu.

Gizarte-gaiez kezkatuta dauden norbanako eta talde guztiei dei egiten diegu, beraz, kamera edo are telefono mugikorra hartu eta gai hau landu dezaten. Modu horretan, eta ikus-entzunezko baliabideak lagun, gizartea eraldatzeko prozesuan parte hartu ahalko dute.

Kezka apur bat, irudimena eta mundua aldatzeko gogo bizia baino ez dira behar!!!

## 5º Concurso Internacional de Spots Sociales

**Mugarik Gabe**, organización no gubernamental para el desarrollo, organiza un año más el **Concurso Internacional "ZureVision-SocialVision"**.

Este concurso busca dar a conocer entre la ciudadanía el concepto de **soberanía alimentaria**, denunciando el funcionamiento del actual sistema agroalimentario, las consecuencias que éste tiene para las personas que producen los alimentos y quienes los consumen, visibilizando las consecuencias específicas para las mujeres, en los distintos lugares del mundo y en nuestro entorno. Siendo la soberanía alimentaria una alternativa a este modelo pretendemos difundir también las distintas experiencias que están desarrollándose desde esta visión.

Animamos a todas las personas y/o colectivos con inquietudes sociales a que se animen a tomar una cámara o incluso su teléfono móvil y plasmen esta temática contribuyendo así, a través de los medios audiovisuales, a la transformación social.

¡Solo hace falta inquietud, imaginación y muchas ganas de cambiar el mundo!



## Lehiaketaren oinarriak

- Izena ematea doakoa da, eta mundu osoko emakumeek, gizonak eta taldeek parte hartu dezakete.
- Parte-hartzaileek lehiaketara aurkezten dituzten lanak emititzeko eskubideen jabe izan behar dute.
- Aurkeztutako lanen gaiak nahitaez izan behar du **Elikadura Subiranotasuna**.
- Aurkeztutako lanek gehienez **2 minutu** iraungo dute.
- Lanak **DVD** euskarrian aurkeztuko dira, ahalik eta proiektzio-kalitate onenean.
- Parte-hartzaile bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal ditu.
- Lanak euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztu daitezke.
- Lanekin batera jatorrizko elkarrizketen zerrenda ere aurkeztuko da, gaztelaniaz zein euskaraz idatzita.
- Parte hartu nahi dutenek inskripzio-orria bete behar dute, eta spotaren kopiarekin batera (DVD euskarrian) bidali helbide honetara: "Zure**vision-Social**Vision Nazioarteko Lehiaketa, MUGARIK GABE, Vicente Garamendi etxaldea, 5 behea — 48006 Bilbo. DVDan, halaber, obraren izenburua eta arduradunaren izena idatzi beharko dira.
- Bidalketa-gastuak parte-hartzaileak berak ordainduko ditu. Atzerritik bidalitako lanetan honako hau idatzi behar da paketearen kanpoaldean: "Balio komertzialik gabekoa, interes kulturalakoa".
- Lanak jasotzeko **azken eguna** 2012ko apirilaren 14a izango da. Posta-zigiluaren data hartuko da kontuan.
- Lanak Mugarik Gabe erakundeak 2012ko maiatzean zehar Bilbon eta Gasteizen antolatuko duen zinemaldian erakutsiko dira. Mugarik Gabe erakundeak lehiaketaren oinarriak betetzen ez dituzten spotak ez onartzeko eskubidea du.
- Spot guztiak Mugarik Gaberen funts dokumentalaren zati izango dira, eta erakundeak hezkuntzari lotutako xedeetarako erabili ahaliko ditu.
- **Bi sari** banatuko dira:  
"Epaimahaiaren saria", 200 eurokoa. Gaian aditu diren epaimahaikideek erabakiko dute irabazlea zein den.  
"Ikusleen saria". Bilbon eta Gasteizen antolatutako zinemaldian zehar jasotako botoen arabera emango da saria.
- Sarituak 2012ko ekainean jakinaraziko dira, Mugarik Gaberen webgunean eta parte-hartzaileei bidalitako mezu elektronikoko bidez.
- Zure**vision-Social**Vision Nazioarteko V. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauetako puntu guztiak onartzen direla.

## Bases del concurso

- La participación es gratuita y abierta a mujeres, hombres y colectivos de todo el mundo.
- Las personas participantes deberán tener los derechos de emisión de los trabajos presentados a concurso.
- Es requisito que todas las obras aborden la temática de **Soberanía Alimentaria**.
- Los trabajos presentados podrán tener una duración máxima de **2 minutos**.
- Los trabajos deberán ser presentados en **DVD** con su mayor calidad de proyección.
- Cada participante podrá enviar el número de trabajos que desee.
- Las obras podrán presentarse en euskera o castellano.
- Las obras presentadas deberán adjuntar el listado de diálogos originales en castellano o euskera.
- Aquellas personas que deseen participar deberán cumplimentar la ficha de inscripción y enviarla junto a una copia del spot en DVD (indicando en éste título de la obra y persona responsable) a esta dirección: "Concurso Internacional Zure**vision-Social**Vision", MUGARIK GABE, Grupo Vicente Garamendi nº 5 P.B – 48006 Bilbao.
- Los gastos de envío correrán por cuenta de la persona participante. Los envíos desde el extranjero deben llevar indicado en el exterior del paquete: "Sin valor comercial; de interés cultural".
- La **fecha límite** de recepción de las obras es el 14 de abril de 2012. Se tomará en cuenta la fecha del sello postal.
- Las obras serán exhibidas en la Muestra de Cine que Mugarik Gabe llevará a cabo en Mayo de 2012 en Bilbo y Gasteiz. Mugarik Gabe podrá desestimar aquellos spots que no se adapten a las bases del concurso.
- Todos los spots pasarán a formar parte del fondo documental de Mugarik Gabe que podrán utilizarse con fines educativos.
- Se otorgarán **dos premios**:  
"Premio del Jurado", con una dotación económica de 200 euros. La elección final será realizada por un jurado de especialistas en el tema.  
"Premio Reconocimiento del Público". La elección final se realizará a partir de los votos recogidos en la Muestra de Cine desarrollada en Bilbo y Gasteiz.
- El resultado de la selección se informará en junio de 2012 a través la web de Mugarik Gabe y vía e-mail a las personas concursantes.
- La participación en el V Concurso Internacional Zure**vision-Social**Vision implica la aceptación de las presentes bases en todos sus puntos.

## Lehenetsitako edukiak

**Elikadurarako eskubidea** Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasota dago. Hala eta guztiz ere, XXI. mendean bete-betean gaudela, 1.200 milioi lagun gose dira. Horietatik % 75 nekazariak dira, eta % 75 emakumeak eta neskek. Bizkitartean, munduan ekoiztutako laboreen % 60 abeltzaintza industrialeko azientak elikatzeko erabiltzen da. Labore horiek, batez beste, 12.000 km egiten dituzte, Europako edo Iparramerikako etxaldeetara iristeko. Monolaborantzaren beste jomuga nagusia biodieselaren ekoizpena da; geure ibilgailuak elikatzeko erabiltzen da, hain zuzen.

Vía Campesina erakundea 1996an hasi zen **elikadura-subiranotasunaren** kontzeptua zabaltzen. Orduz geroztik, asko dira kontzeptu hori bere egin duten erakundeak eta mugimenduak, egungo garapen-eredua alboratu eta munduko elikadura eta nekazaritza kolokan jartzen duen sistemari aurre egiteko bidea dela ulertuta. Elikadura-subiranotasuna alternatiba da politika neoliberalen eta enpresa transnazionalen nekazaritzaren eta elikaduraren gainean egiten duten kontrolaren aurrean. Horiek horrela, gizakiok ingurumen, elikadura eta gizarte arloetan ditugun eskubideei erantzuteko eredu berri gisa ulertu behar dugu.

Zer dio MUGARIK GABEK elikadura-subiranotasunari buruz?

- Herriek **eskubidea** dute honako ezaugarri hauek dituzten elikagaiak **ekoizti eta kontsumitzeko**: nutritiboak, kultura aldetik egokiak, eskuragarriak eta modu jasangarrian eta ekologikoan ekoiztutakoak. Era berean, eskubidea dute euren elikadura-politikak **erabakitzeko**, hau da **elikadura- eta ekoizpen-sistema** propioa ezartzeko.
- Enpresa transnazionalen interesen aurrean, lehentasuna eman behar zaie **tokiko ekonomia eta merkatuei** eta, bestalde, elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa oinarritu behar da **ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik jasangarria den sistema** batean.
- Horretaz guztiaz gain, **emakumeek** elikagaien ekoizpenean **egiten duten lana eta hari lotutako eskubideak** aitortu eta errespetatu behar dira, eta emakumeek erabakiak hartzen diren organoetan **ordezkaritza** izango dutela bermatu.

Lehiaketa honetan, bada, gai hauek dute lehentasuna:

- **Kontzeptua.** Definizioari buruzko ideiak; zer da elikadura-subiranotasuna?
- **Arrazoiak.** Elikadurak munduan duen egoera eta nekazarien egungo arazoak eragin dituzten arrazoiak; zergatik dago gosea? zergatik ari da galtzen tokiko nekazaritza?
- **Alternatibak.** Nekazaritza eta elikadura industrialaren sorgin-gurpiletik kanpo abiarazi diren esperientzia eraldatzaileak; ezagutzen al duzu horrelako ekimenik?
- **Ikuspegi feminista.** Emakumeek historian zehar nekazaritzari eta elikadurari buruzko ezagutzaren zabalkuntzan egin dituzten ekarpenak aitortzearen gaineko gogoetak; honi buruz, zer duzu esateko?

## Contenidos priorizados

La Declaración Universal de Derechos Humanos dispone el **derecho a la alimentación**. Sin embargo, en pleno siglo XXI casi 1.200 millones de personas pasan hambre, siendo el 75% población campesina y el 75% mujeres y niñas. Mientras tanto, el 60% del cereal producido en el mundo es destinado a alimentar la ganadería industrial y debe recorrer de media 12.000 Km. hasta su destino en granjas europeas o norteamericanas. El otro destino estrella de los monocultivos es la producción de biodiesel que alimenta nuestros vehículos.

Desde que en 1996 Vía Campesina introdujo el concepto de **soberanía alimentaria** muchas organizaciones y movimientos sociales lo han asumido para oponerse al actual modelo de desarrollo y enfrentarse a quien pone en peligro la alimentación mundial y la agricultura. Siendo una alternativa a las políticas neoliberales y al control de las transnacionales sobre la agricultura y la alimentación, la soberanía alimentaria se ha constituido como un nuevo modelo que responde a los derechos sociales, ambientales y alimentarios de la humanidad.

Para MUGARIK GABE la soberanía alimentaria:

- Es el **derecho** de los pueblos a **producir y consumir** alimentos nutritivos y culturalmente adecuados, accesibles, producidos de forma sostenible y ecológica, y su derecho a **decidir** su propio **sistema alimentario y productivo**, sus políticas alimentarias.
- Prioriza las **economías y mercados locales** frente a los intereses de las transnacionales y coloca la producción alimentaria, la distribución y el consumo sobre la base de la **sostenibilidad medioambiental, social y económica**.
- Todo ello bajo el reconocimiento y el respeto de los **derechos y el papel** de las **mujeres** en la producción de alimentos y la **representación** de las mujeres en todos los órganos de toma de decisiones.

Para este concurso priorizaremos el tratamiento de las siguientes temáticas.

- **Concepto.** Ideas sobre su definición, ¿qué es la soberanía alimentaria?
- **Causas.** Motivos que han conducido a la actual situación del campesinado y la alimentación en el mundo, ¿por qué hay hambre? ¿por qué se está perdiendo la agricultura local?
- **Alternativas.** Experiencias que transforman rompiendo el círculo vicioso de la agroalimentación industrial, ¿qué iniciativas conoces?
- **Visión feminista.** Reflexiones sobre el reconocimiento de los aportes de las mujeres, como creadoras históricas de conocimientos en agricultura y en alimentación, ¿qué tienes que decir sobre esto?

**:: INSKRIPZIO-ORRIA :: FICHA DE INSCRIPCIÓN ::**

**Spot-aren datuak :: Datos del spot**

Izenburua :: Título

Herrialdea :: País

Urtea :: Año

Laburpena :: Sinopsis

Azaldu labur ze mezu azaldu nahi duen spot-ak :: Explicar brevemente qué mensaje transmite el spot

**Pertsona arduradunaren datuak :: Datos persona responsable**

Izena :: Nombre

Helbidea :: Dirección

Telefonoa :: Teléfono

E-mail ::